



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2020/09/03AN**

### **Gaur egungo egoera Arabako Errioxan**

Abuztuko azken hamabostaldian eta iraileko lehen egun hauetan, eguneko tenperatura balio normaletan mantendu da; egun batzuk hotzak izan dira garai honetarako, batez ere hil amaieran. Gau gehienak freskoak izan dira, eta hori oso onuragarria da.

Sasoi honetarako tenperatura hotza izateari, eguneko eta gaueko tenperaturaren arteko aldeari, ur nahikoa izateari eta argitasun handiari esker, kolore aldaketaren amaieratzat jotzen den aldian, konposatu fenoliken bilakaera oso ona izan da; heltze fenomeno moteldu da eta, gainera, mahastiak berdintzen lagundu du.

Mahastiak heltze prozesu bete-betean daude une honetan, barietate gehienei dagokienez (N egoera fenologikoa). Zenbait barietate, hala nola Tempranillo Zuria, Sauvignon Blanc-a eta Chardonnay-a, prest daude berehala biltzeko. Mahats zuriaren barietate nagusia, Viura, astebete edo hamar egun barru egongo da prest biltzeko aurkintza gehienetan. Bestalde, Tempranillo Beltza, zeina baita Arabako Errioxan azaleraren zatirik handiena —% 90 baino gehiago— hartzen duen barietatea, iraileko hirugarren astetik aurrera biltzen hastea aurreikusi da, baldintzak normalak badira. Altitudeak, orientazioak, kargak eta bestelakoek ez ezik, kazkabarrak eragin ditzakeen kalteek eta mildiaren eraginak ere baldintzatuko dituzte data horiek, logikoki, eta kanpaina honetan bereziki.

Iazko kanpainarekin alderatuta, mahatsa beranduxeago ari da heltzen. Baina ez urte arrunt jo daitezkeenekin alderatuta; urte arrunt batean baino astebete inguru lehenago dator.

Mahastiaren osasun egoera ona da, bai eta egoera begetatiboa ere. Horren harira, azken asteotan Arabako Errioxako eskualdean botatako bi edo hiru zaparrada ekaiztsuak (leku batzuetan gogorrakoak beste batzuetan baino) mesedegarriak izan dira oro har.

Mahats bilketaren kalitateari dagokionez, ezusteko ezbeharririk gertatzen ez bada, oro har ona izango da eta, beti bezala, oso lotuta egongo da errendimenduekin. Ekoizpena gehiegizkoa ez den tokietan, mahasti gehienetan, aleak solte daude, eta mahats mordoak luzangak baina tamaina txikikoak dira. Mahastizaintza Zerbitzuak egiten duen heltze azterlanean orain arte jasotako mahats laginen analisisiek erakusten dute oreka ona dagoela parametro enologikoen artean.

Era berean, ekoizpena eraginen araberakoa izango da. Hain zuzen, aurten, Arabako Errioxaren zati handi batean eragina izan dute harriak, luiziek eta mildiu eraso gogorak. Ezbehar edo gaixotasun horien eraginpean ez dauden mahastietan, oro har, ekoizpen ona lortuko da, eta beste batzuetan, berriz, urtea bereziki zaila izan den kasuetan, ustiategi batzuek uzta gutxiago bilduko dute.

Mahastiak heltzeari dagokionez, alde handia dago mahasti batetik bestera; hala ere, pentsatzekoa da kanpaina honetan gehiago bilduko dela baliabide mekanikoen bidez, sasoikako langileen artean Covid-19a zabaltzeko arriskua dela eta. Era berean, arriskua ahalik eta txikiena izan dadin, litekeena da ohi baino azkarrago biltzea mahatsa, eta, mahatsa gutxieneko baldintza enologikoetara iristen denean, arinago ibiltzea.

### **Arabako Txakolinaren gaur egungo egoera**

Arabako Txakolinaren eremuan, urte lehorra baina garapen begetatiboari eustea ahalbidetu duten aldizkako euriteak izan ondoren, mahastia abuztura iritsi zen ur faltagatiko estres sintomak zituela. Euri gutxi ekarri duten ekaitz egun batzuk oso une egokian iritsi dira heltze zikloa amaitzeko eta aleak apur bat loditzeko. Arabako Errioxan bezala, txakolinaren eremuan ere, egunotan mahastiak azken heltze fasean daude, eta astebete edo hamar egun lehenago dator urte arrunt batean baino.

Zenbait barietate, hala nola Chardonnay-a eta Riesling-a, iraileko bigarren astearen amaieran biltzen hastea aurreikusi da. Jatorri deiturako barietate nagusia, Hondarribi Zuria, iraileko hirugarren aste inguruan hasiko da biltzen, eta Petit Courvu barietatea handik egun batzuetara.

Mahastiaren osasun egoera bikaina da, eta ekoizpena, orekatua. Uzta ona izatea espero da, aurrekoaren antzekoa, ikuspegi kualitatibotik.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak aste honetan hasi ditu mahastizain eta upategiei mahats bilketa noiz hasi jakiten laguntzeko eta haren baldintzen berri emateko urtero egiten dituen heltze jarraipenaren kontrolak. Nahi duenak **<https://web.araba.eus/es/viticultura/boletines-maduracion>** webgunean argitaratutako datuak eskuratu ahalko ditu, informazio zehatzagoa izateko.

Guardia, 2020ko irailaren 3a  
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua